



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO A: KARRIKA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-07	19:05	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona eta Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak:	Euskaraz: 9		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 6		Gizonezkoak: 3	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 7	51-65 urte: 1	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da.
2020 urtea	2020ko egoera azaldu da.
2021eko aurreikuspena	2021eko aurrekontuak azaldu dira. Ez da galderarik egon.
Auzoa	<p>Haur parkeen inguruan hitz egin da:</p> <ul style="list-style-type: none">·Plazakoa ez da batere egokia. Gainera parkearen inguruan aparkatu egiten dute. Errekaren beste aldera eraman beharko litzateke. Parke motaren inguruan, eredu asko daude, baina gauza sinple batekin nahikoa litzateke. Egurrak dituzten horietakoak.·Plazakoa ez da egokia, baina elkargune bat da. Autobuseko haurrak, bidegorritik datorren jendea, aiton-amonak. Denak hor elkartzen dira. Ez luke aparkatzeko lekua izan behar, libre egon beharko luke autobusak buelta emateko. Agian mahaiak eta bankoak jartzearekin nahikoa da. Markesinak berak markatuko du hori ez dela aparkatzeko. Baina gune bat egon beharko luke.·Agian hesiak jarri beharko lirateke eremua mugatzeko.·Eremua markatzeko beharra dago.

Beko errotako aparkalekua: eremu horretan aparkalekua mantenduko den galdetzen da. Plan orokorrak ez du uzten eta ez da aurreikusten eremua horrela mantentzea.

Plazan, errekaren beste aldeko aparkalekuko eremua ordenatu behar da eta sartu irteerak markatu beharko liteke.

Kooperatiba etxearen atzeko espazioa:

- Oso jende gutxi erabiltzen du.
- Baina mantenua behar du.
- Haur helduagoentzat prestatuko beharko litzateke. Tirolinak edo horrelako jolasak jarri beharko lirateke.
- Estalkia beharko luke.

Abiadurarekin arazoak:

- Zebra bideak asko lagundu du, lehen ez zegoen lehentasunik autoekin.
- Karrika kanpotik barrura etortzen direnak abiadura handian etortzen dira.
- Seinaleek lagundu dute, baina beste zerbait egin behar.
- Badenak jarri beharko lirateke. Iritzi ezberdinak daude. Abiadura jaisteko balio dute. Baina zarata egiten dute.
- Abiadura mugatzeko seinaleak beharko lirateke.
- Plazako zubitik ateratzen direnentzako ispilua behar da. Sarreratik datozenak ikusi ahal izateko.

Artaso inguruko eremuan pinua ateratzeko lanak egingo direla aipatzen da. Zuhaitzak botatzen hasi behar dute eremu batean. Lanean ari diren bitartean, bertatik pasatzen den herri bidea txukun mantentzeko eskatzen da, gutxienez asteburutan. Lanak bukatzean berriz, herri bidea babesteko eskatzen da. Pinuak herri bideari tope egiten diote eta babestu egiten dute. Pinua ateratzen dutenean ere bidea konpontzeko eskatu beharko litzaioke enpresari. Bidean hormigoitik behera ez da ezer geratuko behin pinua ateratzen dutenean.

Karrikako errepidea nolatan Karrikaraino ez den konpondu galdetu da. Aldundiari eskatu zaio konpontzeko baina ez da erantzunik jaso. Egur lanak ere egon dira eta kamioiak abiadura handian etortzen dira.

Herri landaketak:

- Herri landaketak egiten direnean sareak jartzen dira, baina ondoren ez dira kentzen. Itsuski egiten du.



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<ul style="list-style-type: none">- Ahal den neurrian kendu egin beharko lirateke.- Lehen baserritarrek eskatu eta aprobetxatzen zituzten. <p>Fibra optika:</p> <ul style="list-style-type: none">- Internet kaxkarra dago.- Udalak ez du eskumenik. 2021ean enpresa pribatuek despliegea egingo dutela erantzun zitzaion udalari.- Udalak ez du aukera argirik honen inguruan.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,50
bilera ongi gidatu da	8,50
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,13
Auzotar kopurua	4,13
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,88
Saioa probetxugarria izan al da?	7,38
Egunaren egokitasuna	8,25
Orduaren egokitasuna	7,88
Lekuaren egokitasuna	9,50